

IKASTAROA: ENPLEGURAKO GAITASUN SORTZAILEAK

Del 12 de enero al 2 de febrero, lunes 18:00-20:00 (en castellano)

1

- Irakaslea: Miren B. Lauzirika Jauregi.
- Inskripzio-epea: abenduaren 1etik 16ra.
- Ikastaroaren garapena: 2015eko urtarrilaren 12/14tik otsailaren 2/4ra (gaztelaniaz eta euskaraz, hurrenez hurren). 18:00etatik 20:00etara, Foru Liburutegia (5. solairua).
- Iraupena:
 - Gaztelaniaz: 8 ordu, bi orduko 4 saiotan banatuta
 - Euskaraz: 8 ordu, bi orduko 4 saiotan banatuta.
- Hartzaileak: euren lan aukerak hobetu nahi dituzten pertsona guztiak, horretarako sorkuntza-ahalmenak sustatzeko interesa dutenak.

ENPLEGUGARRITASUNERAKO SORKUNTZAZKO GAITASUNAK

Prestakuntzako esperientzia praktikoa da, sorkuntzazko gaitasuna optimizatuz euren enplegugarritasun aukerak hobetzeko berriazko ekintzak behar dituztenentzat.

Prestakuntzako ekintza honek eraginak ditu berriaz hezkuntza formalean zaintzen ez diren zeharkako gaitasunetan eta gaitasun horiek sustatzen ditu.

HELBURUAK

- Parte hartuko duten pertsonak euren gaur egungo gaitasunei eta trebeziei buruzko hausnarketa egiteko esparrua edukitzea, horrela lanpostu baterako euren buruak aintzatesteko puntu sendoak eta elementu bereziak bistaratzeko gauza izan daitezen, lan autoestimua hobetuz.
- Euren sortzeko gaitasun propioari buruzko esperientzia ikusteko gauza izan daitezela, hala maila indibidualean nola talde mailan, talde lana, malgutasuna eta sortzeko gaitasuna landuz. Horri guztiari

esker lan merkatuari era aktiboan eta motibatuan aurre egiterakoan esperientzia eta hausnarketa erabilgarri berriak eskuratzeko aukera izango dute.

- Pertsona horientzat sektorerik eta jarduerarik funtsezkoenak zeintzuk diren aztertzeko hausnarketarako esparrua sortzea, pertsona horien kezka, prestakuntza eta trebeziak kontuan hartuta: sektore baten, jarduera baten, fokalizatze beharrezkoak diren osagaiei buruzko hausnarketa.
- Lan aukera sortzerakoan errealistak izango diren etorkizuneko ekintzei buruzko sorkuntzazko hausnarketa egitea.

EDUKIAK

- Enplegugarritasuna hobetzeko sorkuntza. Zer da, zertarako balio du sorkuntzak?
- Zer lortu nahi da lanpostu bat estali nahi denean?
- Lan egiteko askotariko formulak.
- Zeintzuk dira nire talentuak? Nire puntu sendoak eta berezko trebeziak.
- Nire "alde optimo profesionala" zein den deskubrituz: interesak, trebeziak, nortasuna...
- Sorkuntza indibiduala eta talde sorkuntza: Nola jarduten dut? Zeintzuk dira sorkuntzaren gakoak? Zerk mugatzen du sorkuntza?
- Jarrera aldatuz lan merkatuan.
- Zein sektoretan finkatuko naiz? Nondik hasiko naiz/jarraituko dut? Egon nagoen lekutik aurrera egiteko ekintza plana.

PROGRAMA

Uztarrilaren 14tik otsailaren 4ra, asteazkenero 18:00-20:00 (euskaraz)


Izena emateko epea: abenduaren 1etik 16ra

1. saioa. Sarrera, metodologia, saioen arauak, aurkezpena.

- Zer da sorkuntza, zertarako balio du sorkuntzak: kontzeptuak kontzeptualizatuz eta bistaratu. *Bilingüe*
- Igurikimen indibidualak: txandaka. Liburutegiko Txartela aurkeztu egin behar da
Para acceder a la Biblioteca Foral es necesario presentar DNI, pasaporte o Carné de la Biblioteca.
- Talde dinamika lanpostua estaltzea zer den eta horrelakoetan zer bitartzen den hausnartzeko.

Gehienez: 20 pertsona (hurrenkeraz) / Máximo: 20 personas (por orden de inscripción)

Liburutegiko Txartela aurkeztu egin behar da
Para acceder a la Biblioteca Foral es necesario presentar DNI, pasaporte o Carné de la Biblioteca.

Foru Liburutegia  Edo. 0.1.199-2014 Diputación, 7 - BILBAO

www.bizkaia.net/foruliburutegia · foru_liburutegia@bizkaia.net · t. 944 067 702

2. saioa. Lan egiteko formula desberdinak: ekintzaletasuna, enplegua, intra-ekintzaletasuna,...

- Sorkuntza propioa ezagutzeko/esperimentatzeko dinamika.
- Aurkikuntzarako dinamika. Zeintzuk dira nire talentuak? Nire puntu sendoak eta berezko trebeziak, mapa.
- Hausnarketa/Hausnarketak konpartitzea.

3. saioa. Nire "alde optimo profesionala" zen den aurkitzen: interesak, trebeziak, nortasuna,...

- Nire gaitasunak sustatzen eta mugatzen dituzten alderdiak. Nolako inguruabarretan egiten dut lan ondoen? Zeintzuk dira lan bat aurkitzerakoan laguntzen nauten alderdiak? Zer eragozten dit?
- Lan bat aurkitzerakoan gertatzen den motibazioa eta desmotibazioa xehekatu. Kontzeptuak: serendipia, akatsa eta porrota berriz kontzeptualizatzea, buruko langak haustea.

4. saioa. Jarrera aldatuz lan merkatuan: talde dinamika, roll-playinga.

- Mapa indibidualaren/Ekintza Planaren sorkuntza: Zein sektoretan finkatuko naiz? Nondik hasiko naiz/jarraituko dut? Egon nagoen lekutik aurrera egiteko Ekintza Plana.
- Azken hausnarketak: Zer daramat nirekin? Zer ikasi dut? Oraindik aurrera zer urratsetan finkatuko naiz?
- Amaiera eta eduki nagusien laburpena.

METODOLOGIA 14tik otsailaren 4ra, asteazkenero 18:00-20:00 (euskaraz)

Izena emateko epea: abenduaren 1etik 16ra

Esperientzietan oinarritutako dinamikien bidez jarrera proaktiboa sustatzen da; horrela parte hartzen duten pertsonak alderdi aktibo eta eragingarri sentitzen dira euren inguruan.

Elebiduna / Bilingüe

Talde dinamikak eta lan indibidual praktikiko-pertsonalizatuak konbinatzen dira, adierazpen grafikoa, dinamika berritzaileak eta sorkuntzako teknikak/dinamikak erabiliz esperientziak eta hausnarketak optimizatzearen ondoretarako.

Diputación, 7 · BILBAO

Biblioteca Foral

www.bizkaia.net/foruliburutegia · foru_liburutegia@bizkaia.net · t. 944 067 702